

# 01. BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun **etxebizitza** bat **erostea oso zaila** da, gero eta gehiago balio dutelako eta **jendearen bizitza** asko **aldatzen** baitute. Jendea lan munduan sartzen denetik, “betirako” izango den lan finko bat izan arte urte asko pasa daitezke eta etxe propio bat izateko beharrezkoak dituzun **aurrezkiak lortzea** gero eta **zailagoa** da. Horregatik bururatu zitzaigun leku batetik bestera **eramangarriak** izango diren etxebizitzak ekoiztea, gure bezeroen bizitza pertsonala edo laborala aldatu arren, **etxea mantendu** dezaketelako. Gainera, gure etxeak ekoizteko erabiliko ditugun materialak **ingurumena zaintzen** dute eta **berrerabilgarriak** dira.

Gure enpresak balio **kuantitatiboa** eta **kualitatiboa** eskaintzen die bezeroei. Alde batetik, balio kuantitatiboari dagokionez, egingo ditugun etxe eta lokalak **arrazoizko prezio** bat izango dute. Eta beste alde batetik, ekoiztuko ditugun etxeak bezeroen **premiekin** eta **gustoekin bat** egongo dira, hau da, diseinu polita edukiko dute eta beraien **beharretara egokituko** dira, eta hor dago gure enpresak eskaintzen duen balio kuantitatiboa.



Gure **negozio eredia** zein den kontutan izanik, hauek dira gure enpresak bezeroei balioa emateko eta lehiakideengatik **bereizteko** dituen **elementuak**:

Hasteko, gure produktua **berritzailea** izango da gure inguran ez dagoelako produktu hau. Egin ditugun ikerketetan ikusi dugu antzeko produktuak Estatu Batuetan eta beste herrialderen baten saltzen direla, baina printzipioz enpresa hauek ez dute jardungo merkatu berean.

Bestalde, guk eskainiko ditugun etxeen artean etxe batzuk **diseinatuta** egongo dira berez, hau da, **altzari enpresa** batekin edukiko dugun **aliantzaren** bidez etxe batzuk edukiko ditugu goitik behera antolatuta diseinu mota desberdinekin. Baina etxea hutsik nahi duten bezeroentzako, hutsik salduko ditugu etxeak gero bezero bakoitzak etxearen **diseinua** eta **antolamendua aukeratu** dezan.

Jarraian, etxeen prestazioak **kalitateari** erreparatuz, **erdiko kalitatezko materialak** erabiliko ditugu. Hau da, ez gara izango merkatuan material onenak erabiltzen ditugun enpresak, baina **material iraunkorrak eta kalitate onekoak** izango dira.

Hortaz gain, arestian aipatu dugun legez, bezero batek bere etxea gure laguntza barik pertsonalizatu nahi badu, **hutsik erosteko aukera** izango du. Horrela, norberak nahi duen modura pertsonalizatu egin ahalko du, baina guk **eskainitako diseinu** bat eros dezake, eta gauza batzuk aldatzen bere estiloko departamentua osatzea. Aukera hauek egingo dute gure **produktua moldagarria** izatea gauza ezberdin asko sortzea ahalbidetzen duelako.

Gainera, gure produktuak bezeroei erraztu egingo die diseinuarekin. Hau da, guk **diseinuak eginda** edukiko ditugu beste altzairu enpresa batekin dugun aliantzagatik, eta etxe **diseinu desberdinak eskainiko** ditugu.

Etxebizitzaren prezioari erreparatuz, bezeroari egokitzen zaion **prezio lehiakor** bat eskaniko dugu. Gainera, **3 urteko bermea** eskainiko dugu fabrikaz zerbait txarto montatuta badago edo altzairu batek akats bat badu **aldatu edo konponduko** ditugu.



Atzitik, gure **produktua erabiltzea** eta leku batetik beste batera **garraiatzea erraza** da. Hau da, etxebizitzak errepidetik kotxeari lotuta garraiatu ahal dira, **trafiko arauak errespetatzen** dituen produktua eskaintzen dugulako.

Azkenik, gaur egun etxebizitzak oso garestiak dira edozein lekutan, eta, adibidez, **unibertsitateko ikasleek** ezin dute etxe bat erosteko gaitasunik, beraz, gure proiektuarekin **etxe merkeak** eskainiko ditugu. Handiak ez izan arren, bizitzeko beharrezkoa duen gutzia batuko dute, eta gutxi ez balitz, **garraiagarriak** izango dira.

Gainera, **eguzki panelak** edukiko dituzte etxeek, erabat elektrikoki independienteak egingo dien faktore garrantzitsua.

*"Hau gutxi balitz, hona hemen zehaztasun gehiago"*

Gure produktuaren funtzioak **biztanleei etxebizitza** bat **eskaintzea** dira. Hortaz gain, **bezero mota askotarako** produktua da, pertsona nagusientzako zein gazteentzako egindako produktu bat da. Gainera gure etxebizitzekin aldi baterako auzoak sortu ahal dira, hau da, jende ugari gure etxebizitzak erosten baditu zonalde edo lur eremu batean bata bestearen ondoan ipini ahal ditu, **auzoak** edota **komunitateak** sortuz.



Etxebizitza erostean bezeroari **3 urteko bermea** eskainiko diogu prezioaren barruan. Horretaz gain, herrialdean zehar **espazio eremuak erosiko** ditugu bertan etxeak uzteko, lehen aipatu den bezala **aldi baterako** auzoak sortuz. Aparkatzeko eremu horretan sartzeko, eguneko, asteko edo hilabeteko **tarifak** salduko ditugu, baina hauek oso **prezio arrazoizkoan** jarriko dira, gastuak estaltzeko bakarrik. Baina argi geratu dadila inbertsio hau enpresak pisua eta irabazi egonkorrak dituenean egingo dugula, aurreratzean.

Gure enpresak ekoizten duen produktua **merkeagoa** delako, gizaki askoren **premiak** asetzen dituelako, **garraigarria** delako eta bakoitzaren gustura **diseinatu** eta **moldatau** ahal delako uste dugu **arrakasta** izango duela gure produktuak. Hau da, guk saltzen ditugun etxeak, herri, edo herrialde batetik bestera **garraiatu** ahal dira **erraztasunez**. Halaber, zenbaitero bizilekua aldatzen dutenen **premia beteko** dugu. Orobat, guk eskainitako produktuak **prezio lehiakorra** du eta, azkenik, bezeroaren arabera etxearen **diseinua eta prestazioak moldatau** ahal dira. Hortaz gain, etxeak **bata besteari elkartu** egin daitezke, modulu ezberdinak batuz, beraz, etxe handiagoak egin daitezke. Horretarako enpresak moduluak elkartzeko zerbitzua eskainiko du, familiek beraiek bakarrik egitea oso zaila izan daitekelako.



Azkenik, lehiarekiko abantailei dagokienez, gure produktuak **bizitza estilo ezberdin bat edukitzea ahalbidetzen** du. Gure etxeak etxe normalekin alderatuta, **merkeagoak** direla, gainera **garraigarriak** direla eta bestalde karabanekin alderatuta guk ekoizten ditugun etxeak ekipatuago daudela eta **eguraldi eta klima gehiagotara moldagarriagoak** direla. Faktore hauengatik uste dugu gure produktuak abantailak dituela gure lehiakideek eskaintzen dituzten produktuengandik.

